

MAKILAKIXKI

Munduan asko bezala, etxe batean aita hiru semerekin bizi omen zen.

Seme zaharrena morroi joan omen zen oso urrutira. Urtea bete ondoren, soldata ordeztasun bat eman omen zioten, eta asto horrek, belarrarian "egin ezak urrea" esanez gero, urrea egiten omen zuen.

Hala, bere etxera zetorrela, gau batean ostatzuz urrutiko etxe batean geratu omen zen. Eta oherakoan ostalariari esan omen zion: "ez, gero, nire astoari 'egin ezak urrea' esan!"

Baina mutila ohera joan zeneko, ostalariak egiten omen zion astoari: "egin ezak urrea!" Eta astoak urrea galanki egin omen zion. Orduan ostalariak asto haren tokian hura bezalako beste asto bat jarri omen zuen.

Hurrengo goizean, hartu ostalariaren astoa berea zuelakoan, eta mutila oso alai bere etxera joan omen zen.

Esan omen zien, ba, bere aitari ta anaiei nolako astoa zekarren. Eta hala, lurrean zabaldua izara handi bat jarri omen zuen, eta haren erdian gure asto hori, hantxe urrea egin zezan.

"Egin ezak urrea!" esan omen zion mutilak.

Baina urrerik ez omen zen azaltzen han.

"Egin ezak urrea!" berriz ere.

Eta urrea noiz egingo zegoen, zeren izara guztia simaurtu omen zien.

Gero seme bigarrena joan omen zen morroi. Eta urtea bete ondoren, mahai bat eman omen zion bere nagusiak. "Jar ezak bazkaria edo afaria" esanez gero, mahai horrek bazkaria edo afaria bertan plantatzen omen zuen.

Hala ba, mutil hori bere etxera zetorrela, gau batean anaia zaharrenari astoa lapurtu zioten etxe hartan bertan ostatzuz geratu omen zen. Eta oherakoan ostalariari esan omen zion: "ez, gero, mahai honi 'jar ezak bazkaria' esan!"

Baina hura ohera joan zen orduko, ostalariak "jar ezak bazkaria" esan omen zion mahai horri. Eta mahaiak bertan bazkaria plantatu omen zuen. Eta orduan ostalariak mahai hura ezkutatu eta hura bezalakoxe beste mahai bat haren tokian jarri omen zuen.

Hurrengo goizean mutil hark, hartu ostalariaren mahai berea zuelakoan, eta alde egin omen zuen.

Etxera joan zenean esan omen zien bere aitari eta anaiei nolako mahaia zekarren, eta hala, mahai horri, denen aurrean, deiadar egiten omen zion: "jar ezak bazkaria!"

Baina mahaiak ez omen zuen ezer plantatzen. Mutil gizajoa, ez da harritzekoa eta, oso triste geratu omen zen.

Gero anaia gazteena joan omen zen morroi. Eta urtea bete zuenean bere nagusiak makila bat eman omen zion. Makila horrek ba omen zuen adur ikusgarri bat. Beraren aurrean "makilakixki" esanez gero mutil hori ez beste inguruko guztiak joka txikitu beharrean hasten omen zen.

Hala, gure mutil hori ba omen zetorren, ba, etxera, eta gau batean beste anaiei lapurreta egin zieten etxe hartan ostatzuz geratu omen zen. Afalondoan, lotara abiatu zenean, ostalariari esan omen zion:

- "Ez, gero, nire makilari 'makilakixki' esan!"
- "Ez, ez" - erantzun omen zion ostalariak.

Baina hura ohera joan zeneko, hartu makila eta "makilakixki!" deiadar egin omen zion ostalari lapurrak. Bai eta makila hori hasten da bazter guztiak txikitu beharrean, denak joka; ostalaria eta etxeko beste guztiak. Hark atera omen zuen han iskanbila!

Orduan, ostalaria, estu eta larri, makilaren jabeagana joanda, makila hori gerarazi zezan erregu egin omen zion.

Baina besteak ezetz erantzun omen zion, harik eta haren anaiei lapurtutako astoa eta mahaia eman artean ez zuela geraraziko makilarik. Eta hala, ostalari pikaro hark astoa eta mahaia bihurtu omen zizkion.

Orduan gure mutil hori bere makila, asto eta mahai, etxera joan omen zen.

Handik aurrera denak ondo bizi izan omen ziren.

Hori hala bazan, sar dadila kalabazan.

***Aita Barandiaranek Ataungo Munduate baserriko Felipe Apalategiri 1921ean jasoa.
Euskara batura moldatua***